



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 9a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, lantegi-eskolen programa berriak abian jartzeari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (4. or.).
- Galdera, itxarote-zerrenden egoerari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Eboko mugaketa hidrografikoan uren kudeaketaren arloko Gai Garrantzitsuen Behin-behineko Eskemaren parte-hartze publikoaren prozesuan Lurralde Kohesiorako Departamentuak aurkeztutako proposamenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuako kideek “Aste Santua salbatzea” dela-eta egin dituzten adierazpenei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (6. or.).
- Galdera, 2021eko Liburu eta Edizio Azokari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzaren arazoaren konponbideei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, minbizia dutenentzako osasun-arretari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- Galdera, entitateei justifikazio handiagoa eskatzeko eta haur-eskoletarako hezkuntza-eskaintzari buruzko proposamenak baimentzeko edo ez baimentzeko Hezkuntza Departamentuak dituen irizpideei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, COVID-19aren andui britainiarrari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak kolon eta ondesteko minbiziak eragindako hilkortasun saihegarria saihesteko hartutako neurriei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, langabeziaren azken datuei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).
- Galdera, funtzio publikoaren arloko legegintzaldirako konpromisoei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).

- Galdera, Estellerriko Erriberarako kalitate oneko ur gordinaren hornidurari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen aldaketari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Club Atlético Osasunari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, barne produktu gordinaren (BPGd) hazkundera dela-eta eginiko zenbatespenei buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren lehentasunei eta lan-ildo nagusiei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren medikuntzarako eraikin berria egiteari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, mendekotasunaren arreta finantzatzeko hobekuntza-proposamenei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (14. or.).
- Galdera, osasun-arretarako baliabideak areagotzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, sanfermin desberdinak ospatzeko aukerari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (16. or.).
- Galdera, txerto berriak iristearekin epe ertainean aurreikusten den egoerari buruzkoa. Ramón Alzorriz Goñi jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Next Generation funtsak eskuratzeko aurkeztu beharreko proiektuei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, uztaila baino lehenago txertoa jarrita izanen duen Nafarroako populazio-portzentajeari buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Castejongo Dos de Mayo ikastetxe publikoari ingelesez ikasteko programa uzteko baimena ez emateko arrazoiei buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubideko bigarren fasea eraikitzeke proiektua eta alternatiben azterlana idatzi dituen enpresaren kontratazioa eteteko arrazoiei buruzkoa. Galdera erretiratzea (19. or.).
- Galdera, erabakitzeke eskubideari buruzkoa. Galdera erretiratzea (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2021eko apirilaren 8ko 12:00ak arte** luzatzea. Foru Lege proiektua 2021eko urtarrilaren 15eko 3. Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/LEY-00021).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, lantegi-eskolen programa berriak abian jartzeari buruzkoa.*ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako galdera, lantegi-eskolen programa berriak abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021ean zehar amaituko dira 2019ko azken hilabeteetan hasi ziren lantegi-eskolak, gazte langabetuei prestakuntza ematekoak.

Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten da:

Zer asmo du Eskubide Sozialetako Departamentuak aipatu lantegi-eskolen programa berriak abian jartzeari buruz?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

Galdera, itxarote-zerrenden egoerari buruzkoa.*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, itxarote-zerrenden egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi du Osasuneko kontseilariak Nafarroako itxarote-zerrenden egoera dela-eta?

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Ebroko mugaketa hidrografikoan uren kudeaketaren arloko Gai Garrantzitsuen Behin-behineko Eskemaren parte-hartze publikoaren prozesuan Lurralde Kohesiorako Departamentuak aurkeztutako proposamenari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Ebroko mugaketa hidrografikoan uren kudeaketaren arloko Gai Garrantzitsuen Behin-behineko Eskemaren parte-hartze publikoaren prozesuan Lurralde Kohesiorako Departamentuak aurkeztutako proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Uraren Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren bidez (urtarrilaren 24ko EAO) iragarri zen sei hilabetez jendaurrean jartzea Ebroko mugaketa hidrografikoan uren kudeaketaren arloko Gai Garrantzitsuen Behin-behineko Eskema.

Parte-hartze prozesu horren barruan, 12. Gai Garrantzitsuan (Hornikuntza eta ur iturriak babestea hiri-erabilerarako), Lurralde Kohesiorako Departamentuak "hornidurarako proiektu berariazkoak abian jartzea" izeneko puntuaren barruan, aukeren azterketan aurreikusitako neurriei buruzko proposamen bat aurkeztu zuen, honako hau jasoko zuena:

"Ur gordinaren eta iturri dibertsifikatuen kalitate oneko hornidura ezartzea, aldaketa klimatikoarekin zerikusia duten gertakariekiko erresilientzia areagotzeko; horretarako, Estellerriko Erriberarako hornidura Lokizko akuiferotik eginen litzateke eta Nafarroako Erriberakoa, berriz, Itoiz-Nafarroako Ubidetik".

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Lurralde Kohesiorako Departamentuari, ahoz erantzun dezan:

Zer dela-eta egin zen Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko Plan Zuzendarian ezarritakoaren aurka doan proposamen hori Estellerriko Erriberarako ur hornidurari buruz, Nafarroako Gobernuaren 2019ko maiatzaren 8ko erabakiaz onetsitako plangintzarako tresna hori aldeztu aurretik aldatu gabe?

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Espainiako Gobernuko kideek “Aste Santua salbatzea” dela-eta egin dituzten adierazpenei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Espainiako Gobernuko kideek “Aste Santua salbatzea” dela-eta egin dituzten adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascuésék Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken asteotan, Espainiako Gobernuko zenbait kidek –Reyes Maroto ministroa edo Sánchez presidentea bera– adierazpenak egin dituzte “Aste Santua salbatzea”ren ideia aipatuz eta hurrengo hilabeteetarako “erabateko mugikortasuna”ren itzaropena piztuz.

Nafarroako Gobernuak uste du halako adierazpenek mesede egiten diotela herritarrei hainbestetan eskatzen zaien norbanakoaren eta gizartearen ardurari eta sortzen diren aurreikuspenak egokiak eta bizitzen ari garen errealitatearekin bat datozenak direla?

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, 2021eko Liburu eta Edizio Azokari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, 2021eko Liburu eta Edizio Azokari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-19ak eragindako pandemia dela-eta, aurten liburu azoka (Nafarroako liburu-denda independenteek antolatua) edizio azokarekin (Edi-targi editore independenteek antolatua) batera egin zen, eta bi aldeek onartu zuten arrakastatsua izan zela liburuaren sektorerako.

Galderaren testua:

2021erako aurreikusi da Liburu eta Edizio Azoka bakar eta bateratua egitea, 2020an bezala?

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, Oinarrizko Osasun Laguntzaren arazoaren konponbideei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oinarrizko Osasun Laguntzaren arazoaren konponbideei aurkeztutako galdera, Domingo González Martínez jaunak buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako hainbat lekutan (Altsasu, Lesaka, Azkoien, Zizur...) bizi direnek eta bertako osasun eskualde oinarrizkoetako osasun langileek beren kezka adierazi dute prentsan, giza baliabide urriak

daudelako osasun arretari baldintza egokietan erantzuterakoan.

Besteak beste, honako gabezia eta arazo hauek nabarmendu zituzten: langileak falta dira (une honetan sendagile, pediatra, administrari... lanpostu batzuk bete gabe daude); ez dira ordezkaten oporretan edo aldi baterako ezintasunagatik baja dauden langileak, biztanleen parte batek ez dauka esleiturik sendagilea, zailago bihurtuz gaixoen zitazioa eta jarraipen egokia, arreta presentzialerako ordutegia murriztea...

Kroniko bihurtu denez, egoera horrek dakartzan ondorioak dira profesionalen agendak kolapsatzea, gehiegizko lan-zama, lanaldiak areagotzea, etsipena, frustrazioa eta langileen arteko nahiz erabiltzaileekiko gatazkak.

Arazo horiek gure erkidegoko herri gehiegitan gertatzen ari dira, eta prentsak horien berri ematen du aldian-aldian.

Gertatutakoa ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

- Zer konponbide ari da lantzen Osasun Departamentua Oinarrizko Osasun Laguntzaren arazoak konpontze aldera, bereziki Nafarroako landa eremuetan, eta nola bermatuko da herritarrendako osasun laguntza egokia?

Iruñean, 2021eko otsailaren 3an.

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, minbizia dutenentzako osasun-arretari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, minbizia dutenentzako osasun-arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du,

2021eko otsailaren 11rako aurreikusita dagoen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Pasa den otsailaren 3ko prentsan informazio bat agertu zen, zeinetan Nafarroako Unibertsitatea Klinikako aditu-taldeek ohartarazten baitzuten pandemiak minbizia duten pertsonengan dituen eraginei buruz. Adituen arabera, pandemiak eragina luke minbizirako tratamenduetan, eta horiek sendagarri izatetik aringarriak izatera pasa litezke; horrek pazientearen bizi kalitatean eragina izanen luke.

Aditu-talde honek diagnosi berrien atzerapenez eta ikerketarako baliabideen murrizketaz ere ohartarazten du.

Nolako eragina ari da izaten pandemia minbizia duten pertsonen diagnosi, tratamendu eta jarraipenean?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, entitateei justifikazio handiagoa eskatzeko eta haur-eskoletarako hezkuntza-eskaintzari buruzko proposamenak baimentzeko edo ez baimentzeko Hezkuntza Departamentuak dituen irizpideei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, entitateei justifikazio handiagoa eskatzeko eta haur-eskoletarako hezkuntza-eskaintzari buruzko proposamenak baimentzeko edo ez baimentzeko Hezkuntza Departamentuak dituen irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osasun Batzordean erantzun dezan:

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abendua-ren 17ko 538/2020 Ebazpenean ezartzen den prozeduraren arabera Hezkuntza Departamentuak izan behar du toki entitateek haur-eskolen inguruan egiten duten eskaintza baimentzen duena, 2021-22 ikasturterako, unitate kopuruari eta hizkuntza-modalitateari dagokionez. Ebazpen hori oinarri, toki entitateek proposamen horien justifikazioa igorri behar zuten 2021eko urtarrilaren

29a baino lehen, eta Hezkuntza Departamentuak, egoki irizten badio, toki entitateei eskatu ahalko die igorritako proposamenari buruzko justifikazio zehatzagoa.

Zein irizpidetan oinarrituko da departamentua toki entitateei justifikazio handiagoa eskatzeko eta

haur-eskoletarako aurkeztu duten hezkuntza-
eskaintzari buruzko proposamenak baimentzeko
edo ez baimentzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, COVID-19aren andui britainiarrari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, COVID-19aren andui britainiarrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Osasun Publikoak emandako informazioaren arabera, COVID-19aren andui ingelesaren presentzia handiagoa da.

Zein da andui britainiarraren intzidentzia-
ehunekoa Nafarroako Foru Komunitatean, eta
nola eragin dezake neurrietan eta osasun-arreta
publikoan?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Osasun Departamentuak kolon eta ondesteko minbiziak eragindako hilkortasun saihegarria saihesteko hartutako neurriei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak kolon eta ondesteko minbiziak eragindako hilkortasun saihegarria saihesteko hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu Osasun Departamentuak kolon eta ondesteko minbiziak eragindako hilkortasun saihegarria saihesteko, kontuan hartuta Nafarroan minbizi horren detekzio goiztiarreko programak 10 hilabete daramatzala geldirik?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, langabeziaren azken datuei buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, langabeziaren azken datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozietako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola baloratzen ditu Nafarroako Gobernuak langabeziari buruzko azken datuak?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, funtzio publikoaren arloko legegintzaldirako konpromisoei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, funtzio publikoaren arloko legegintzaldirako konpromisoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakaritzako kontseilariaren ustez, funtzio publikoaren arloan legegintzaldirako hartutako konpromisoak garatzea al da funtzionario publikoen alde lan egiteko modurik onena?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Estellerriko Erriberarako kalitate oneko ur gordinaren hornidurari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Estellerriko Erriberarako kalitate oneko ur gordinaren hornidurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nondik eta noizko aurreikusten du Lurralde Kohesiorako Departamentuak kalitate oneko ur gordinaren hornidura eskaintzea Estellerriko Erriberari?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen aldaketari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eskatuko al du Lehendakariak Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko Foru Legearen aldaketa, 68. artikulua indarririk gabe uzteko? Artikulu horrek behartu egiten du ustelkeria politikokotzat jotako delituengatik ikertutako kontseilariak eta goi-karguak kargua uztera edo kargutik kentzera.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Club Atlético Osasunari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Club Atlético Osasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak otsailaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Club Atlético Osasunak egoera konplexua du bazkide konpromisarioen batzarrerako hauteskunde judizializazioari dagokionez edo kategoriaz aldatzeko arriskuari dagokionez. Hori dela eta,

Zein da Club Atlético Osasunaren betetze-maila Nafarroako Gobernuarekin abala lortzeko hartu zituen konpromisoekin lotutako betebeharrei dagokionez, eta nola alda daitezke betebeharroriek agertoki desberdinen arabera?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Galdera, barne produktu gordinaren (BPGd) hazkundera dela-eta eginiko zenbatespenei buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, barne produktu gordinaren (BPGd) hazkundera dela-eta eginiko zenbatespenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivitek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuako lehendakariak nola baloratzen du Foru Komunitatean 2020ko laugarren hiruhilekoan BPGaren hazkunderaz zure gobernuak zenbatetsitakoaren eta Erantzukizun Fiskalaren Agintaritza Independentek egindako zenbatespenaren arteko aldea?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren lehentasunei eta lan-ildo nagusiei buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren lehentasunei eta lan-ildo nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kargura berriki iritsi delarik, eta joan den legegintzaldian hasitako ibilbide-orri batean Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak ezarri ziren ildo estrategikoetatik harago, honako galdera hau aurkezten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Departamentuaren burutzan, zein izanen dira zure lehentasunak eta lan-ildo nagusiak?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak,

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren medikuntzarako eraikin berria egiteari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren medikuntzarako eraikin berria egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroa Suspertu Planaren 84. erabakiak, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuari buruzkoak, honako hau dio 2. puntuan:

“2021eko lehen hiruhilekoan hasiko dira Medikuntzako eraikin berria eraikitzeke obrak, lehenbailehen bere osotasunean eta modu eraginkorrez erabilgarri egon daitezen eraikina eta ikasgelak, bai eta laborategiak eta simulaziorako ebakuntza-gelak ere”

Joan den urtarrilaren 14an Nafarroako Gobernuak kontrolatzeko egindako Osoko Bilkuran, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak adierazi zuenez “aurreikuspena da NUPeko Medikuntzako eraikin berria hasiko litzatekeela eraikitzen 2021eko azken hiruhilekoan”.

Zergatik gertatu da atzerapen nabarmen hori, bete gabe utziz Parlamentuak onetsitako erabakiak, eta zer ondorio ekarriko du atzerapen horrek medikuntza-graduak ikasleen prestakuntzan?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, mendekotasunaren arreta finantzatzeko hobekuntza-proposamenei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, mendekotasunaren arreta finantzatzeko hobekuntza-proposamenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozietako kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein dira Eskubide Sozietako Departamentuak aurkezten dituen neurri zehatzak eta hobetzeko proposamenak mendekotasunaren arreta finantzatzeko Estatuak handitu duen aurrekontuarekin?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, osasun-arretarako baliabideak areagotzeari buruzkoa.*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, osasun-arretarako baliabideak areagotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Santos Indurain Orduña andreari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

COVID-19aren gaixoen ZIUko ospitaleratzeak azken egunotan kritikoentzako oheen okupazioaren ehuneko 25etik gora edo hortik gora dabilta,

eta hori da Osasun Ministerioak jartzen duen gehieneko muga "muturreko arriskutza" jotzeko, Osasunbidearen ohiko jarduera arrunta arriskuan jarritz.

Kontuan hartu behar dugu ZIUko oheen okupazioaren batez bestekoa, aldi arruntean, ehuneko 60-70 izaten dela, eta COVID-19aren gaixoekin ehuneko 25 igotzeak ehuneko 85etik 95era arteko okupazioa uzten digula, alegia, gure ospitaleetan dauden ia baliabide guztiak.

Kutsatzeen bilakaera eta txertatze prozesuaren geroratzea ikusita, oso litekeena da baliabide gehiago ezarri behar izatea egoera kritikoan ospitaleratzen diren eta laguntza-premia larriak dituzten pertsonen arreta emateko.

Hori dela-eta, parlamentari naizen honek hauxe galdetzen dut:

- Zer aukera darabil Nafarroako Gobernuak ZIU/gaixo kritikoaren arretarako baliabideak handitu, ospitaleratutakoei kalitatezko laguntza bermatu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ohiko jarduera mantentzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an.

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, sanfermin desberdinak ospatzeko aukerari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, sanfermin desberdinak ospatzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkartearen eledun Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du otsailaren 11ko Osoko Bilkurarako:

Aintzat hartuta COVID-19ari buruzko osasun arloko aurreikuspen guztiak: txertatzea, arriskugarritasuna eta andui berriak ugaritzea...

Zer iritzi du Osasun Departamentuak sanfermin "light" edo desberdinak ospatzeko aukerari buruz, Iruñeko alkateari pasa den astean entzun diogunaren arabera?

Iruñean, 2021eko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasuneko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Castejongo Trenasa enpresa, nagusiki trenbide-materiala ekoizten duena eta Beasainen egoitza duen CAF euskal multinazionalaren barruan dagoena, duela zenbait hilabete enplegu-erregulazioko espedientearen (ABEEE) egoeran dago, eta oraindik ez dakigu nola amaituko den enpresak hasiera batean aurkeztutako enplegu-erregulazioko espedientea, ondoren geroratu zena.

Pairatzen ari garen pandemiaren ondorioz, zalantza handiko egoera bizitzen ari gara ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik, eta testuinguru honetan funtsezkoa da kaltetutako familien lan etorkizuna argitzea. Lantegi horretako langileak ezin dira etengabeko zalantzazko egoeran eduki.

Berriz ere gogora ekarri nahi dugu Nafarroako Gobernuak, Sodenaren bitartez, zazpi milioi eurotik gorako inbertsioa egin zuela lantegi horretan autobus hibridoak, elektriko bihur daitezkeenak, egiteko, baina oraindik ez dela agindutako autobusetatik bakar bat ere iritsi Castejonera.

Nafarroako Gobernuak begi bistako ardura du Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari dago-

kionez, eta bere esku dagoen guztia egin behar du lanpostu horiek mantentze aldera.

Zer informazio dauka Nafarroako Gobernuak Castejongo Trenasa enpresaren etorkizun produktiboari buruz, eta zer ekintza egin ditu azken

hilabeteotan aipatu lantegiaren jarduera industriaren bideragarritasuna eta jarraipena lortzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: María Luisa De Simón Caballero

Galdera, txerto berriak iristearekin epe ertainean aurreikusten den egoerari buruzkoa.

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, txerto berriak iristearekin epe ertainean aurreikusten den egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak otsailaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zer egoera aurreikusten da epe ertainean txerto berriak iristearekin?

Iruñean, 2021eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

Galdera, Next Generation funtsak eskuratzeko aurkeztu beharreko proiektuei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Next Generation funtsak eskuratzeko aurkeztu beharreko proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak gardentasun gutxi agertzen du Next Generation funtsak eskuratzeko aurkeztu beharreko proiektuei dagokienez. Zer dela eta?

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, uztaila baino lehenago txertoa jarrita izanen duen Nafarroako populazio-portzentajeari buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, uztaila baino lehenago txertoa jarrita izanen duen Nafarroako populazio-portzentajeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak heldu den otsailaren 11ko Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

COVID-19aren aurkako txertoak egiten dituzten enpresa farmazeutikoek agindutako horniduraren arazoak, edota eraginkortasun-portzentajearen ratio desberdinengatik txertoa jartzeko irizpide berriak izatea, dira azken egunotan uda hasierarako egin ziren txertatze-aurreikuspenak zalantzan jartzen dituzten aldagaietako batzuk.

Une honetan, zer aurreikuspen dauka Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak uztaila baino lehenago txertoa jarrita izanen duen Nafarroako populazio-portzentajearen inguruan?

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Castejongo Dos de Mayo ikastetxe publikoari ingelesez ikasteko programa uzteko baimena ez emateko arrazoiei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Castejongo Dos de Mayo ikastetxe publikoari ingelesez ikasteko programa uzteko baimena ez emateko arrazoiei buruzkoa

zen, eta 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00073).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Nafarroako Ubideko bigarren fasea eraikitze proiektua eta alternatiben azterlana idatzi dituen enpresaren kontratazioa eteteko arrazoiei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Nafarroako Ubideko bigarren fasea eraikitze proiektua eta alternatiben azterlana idatzi dituen enpresaren

kontratazioa eteteko arrazoiei buruzkoa zen, eta 2020ko abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00219).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, erabakitzeko eskubideari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Iñaki Iriarte López jaunak erabakitzeko eskubideari buruz aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Gal-

dera 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00059).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias